ELGOIBARKO HERRIKO ANTZOKIKO KAMERINOEN BARNE ERREFORMA PROIEKTUARI DAGOZKION OBRAK, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ETA TRAMITAZIO ARRUNTAREN BIDEZ, KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRAZIO BEREZIEN PLEGUA	PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACION DE LAS OBRAS CORRESPONDIENTES AL PROYECTO DE REFORMA INTERIOR DE LOS CAMERINOS DEL HERRIKO ANTZOKIA DE ELGOIBAR A TRAVES DE UN PROCEDIMIENTO ABIERTO Y TRAMITACIÓN ORDINARIA
I.- KONTRATUAREN EDUKIA	I.- CONTENIDO DEL CONTRATO
1. KONTRATUAREN XEDEA	1. OBJETO DEL CONTRATO
Plegu honen bidez burutuko den kontratuaren xedea izango da, Elgoibarko herriko antzokiko kamerinoen barne erreforma proiektuari dagozkion obrak exekutatzea, Itsaso Goñik (ARKITEKTURA ETA BARNE DISEINUA)idatzi duen proiektuaren eta espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera. Agiri horiek guztiek kontratuzko izaera izango dute.	El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la ejecución de las obras correspondientes al Proyecto de reforma interior de los camerinos del herriko antzokia de Elgoibar, de conformidad con el proyecto redactado por Itsaso Goñi, (ARKITEKTURA ETA BARNE DISEINUA) y la documentación técnica que figura en el expediente, que tendrán carácter contractual.
CPV KODETZEA: 45212322-9	CODIFICACIÓN CPV: 45212322-9
Obra egiteko, baloratutako memoria eta plegu honi erantsitako planoak izango dira kontuan. Dokumentu guztiek kontratuzko izaera edukiko dute, eta esleipendunak, adostasuna adierazteko, onartu egin beharko du hori, kontratua formalizatzeko egintzan.	La obra se ejecutará según la memoria valorada y planos que se adjuntan al presente pliego, cuyo conjunto de documentos tendrá carácter contractual, y deberá ser asumido por el adjudicatario en prueba de conformidad en el acto de formalización del contrato.
Kontratuak ase behar duen **premia** kontratazio espedientean zehazten da: Beharrezkotzat jotzen da kamerinoak erreformatzea, indarrean dagoen araudira egokitzeko (17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena) eta haien erosotasun-baldintzak hobetzeko.	**La necesidad** que ha de satisfacer el contrato es la siguiente: Se considera necesario reformar los camerinos para su adecuación a la normativa en vigor, el DECRETO 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas y para mejorar sus condiciones de confort.
Kontratua ez da lotetan banatuko. Lanak egiteko beharrezkoa da gremio ezberdinak kontratatzea eta kontratista nagusi bakarra izatean, koordinazioa hobetzen da, epeak luzatzeko arriskua murrizten da eta konponbideak eskatzerakoan solaskide kopurua mugatu egiten da.	**El contrato no se divide en lotes.** Al ser necesaria la contratación de diferentes gremios disponer de un contratista principal supone mejorar la coordinación de los diferentes gremios, eliminando el riesgo de que los plazos se dilaten y limitando el número de interlocutores a la hora de exigir soluciones
Obraren exekuzioaz eta jarraipenaz arduratzen den unitatea ondokoa da: Hirigintza	La unidad encargada del seguimiento y ejecución de la obra es: Urbanismo
2. EXEKUZIO EPEA	2. PLAZO DE EJECUCIÓN

Obren exekuzio epea bi (2) hilabetekoa izango da, eta epe partzialak, laneko programa onartzen denean, epe partzial gisa finkatzen direnak izango dira.	El plazo de ejecución de las obras será de dos (2) meses, siendo los plazos parciales los que se fijen como tales en la aprobación del programa de trabajo.
Kontratuaren exekuzioa 2022ko uztailaren 1ean hasiko da eta 2022ko abuztuaren 31rako bukatuta egon beharko da. Horregatik, hasierako data baino lehen zuinketa akta eginda egon beharko da.	La ejecución del contrato comenzará el 1 de julio de 2022 y deberá estar terminada para el 31 de agosto del mismo año. Por lo tanto, con anterioridad a la fecha de inicio deberá estar hecha el acta de comprobación del replanteo.
Lan programa eta lan arloko segurtasunari eta osasunari buruzko Plana ere aurkeztuta egon beharko dira 2022ko ekainaren 1erako	Deberán así mismo estar presentados el programa de trabajo y el plan de seguridad para el 1 de junio de 2022
Laneko programa onartzen denean finkatzen diren epe partzialak, eta onarpenean zehazten diren ondorioak ere bai, kontratuaren osagaitzat hartuko dira, beharrezkoak diren lege ondorioetarako.	Los plazos parciales que se fijen en la aprobación del programa de trabajo, con los efectos que en la aprobación se determinen, se entenderán integrantes del contrato a los efectos legales pertinentes.
Epe partzialak Jabetzak edo Obra Zuzendaritzak moldatu edo aldatu ditzakete, zuinketa egiaztatzeko akta formalizatu aurretik edota obrak diharduen bitartean.	Los plazos parciales podrán ser ajustados o modificados por la Propiedad o por la Dirección Facultativa, previo al acta de comprobación del replanteo y/o durante la ejecución de las obras.
3. KONTRATUAREN AURREKONTUA	**3. PRESUPUESTO DEL CONTRATO**
Aurrekontua (BEZ gabe) 53.714,74 € BEZ: (%21): 11.280,095 € Kontratuaren balio zenbatetsia: 53.714,74 €	Presupuesto (IVA excluido) 53.714,74 € IVA (21%): 11.280,095 € Valor estimado del contrato: 53.714,74 €
Lizitaziogileek oinarrizko aurrekontua hobetu ahal izango dute. Aurkezten diren eskaintzek ezin izango dute kontratuaren prezioa gainditu.	El presupuesto base podrá ser mejorado por los licitadores. El precio del contrato no podrá ser rebasado por las ofertas que se presenten.
Eskaintzako prezioari ezartzen zaion jaitsieraren ehunekoa proiektuko prezio unitario guztiei ezarriko zaie, baita obra unitate berriak sartzen diren kasuan ere	El porcentaje de baja en el precio ofertado se aplicará en todos los precios unitarios del proyecto, incluso en el caso de que se introduzcan nuevas unidades de obra.
Ez da prezio unitariorik aurkeztuko jaitsiaren ehunekoa proiektuko prezio unitariori automatikoki ezarriko baitzaie.	No se propondrán precios unitarios al aplicarse automáticamente el precio de baja a los precios unitarios del proyecto
Behin kontratua esleitu ondoren, prezioaren barruan, kontratua betetzearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak sartuta daudela uste izango da.	Una vez adjudicado el contrato, en el precio se entenderán incluidos todos los gastos e impuestos que se ocasionen como consecuencia de la ejecución del contrato.
Hala ere, balizko beherapenek inola ere ezin izango diote eragin proiektuan ezarritako aurrekontuari, hau da, segurtasunari eta osasunari dagozkion partidei eta	No obstante, las posibles bajas no afectarán de ninguna manera al presupuesto establecido en el proyecto en relación a las partidas de seguridad y salud y a las

justifikatu behar diren partida altxatuei.

4. FINANTZAZIOA

Esku artean dugun kontratu honek sorraraziko dituen betebeharrei aurre egiteko egokia eta nahikoa den kreditua badago hurrengo partidan: 1.0401.622.333.00.01 2022 (2467)

Era berean, aurrekontuen arloan eskumena duen organoak hitzematen du, beharrezkoak diren kredituak gordeko dituela kontratu horrek eragingo dituen hurrengo aurrekontuetan.

5. ORDAINTZEKO ERA

Ordainketa, aldian-aldian, obren zuzendari fakultatiboak egindako egiaztagirien bidez egingo da. Ziurtagiriak, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko 198. artikuluan ezarritako epeen arabera ordainduko dira.

Egindako egiaztagirien ondorioz egiten diren ordainketak konturako ordainketatzat hartuko dira, eta azken neurketan egon daitezkeen zuzenketen eta aldaketen menpe egongo dira. Egiaztagiri horiek ez dute adieraziko egin diren obrak onartu eta hartu direnik.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Kontratu honetan ez da prezioak berrikusteko aukerarik izango.

7. BERMEAK

Behin-betikoa: Eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztu duen enpresak, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du. Bermea esleipen zenbatekoaren %5aren parekoa izango da, BEZ kanpo utzita.

Berme hori jartzeko epea 10 lan egunekoa izango da, eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztu duen lizitaziogileak horretarako eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bermea, bestalde, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko 108.1 artikuluan ezarritako era guztietan aurkeztu ahal izango da, eskudirutan ezartzen diren bermeen kasuan izan ezik; izan ere, horiek, Elgoibarko Udalak duen edozein kontu korrontetan sartu beharko dira.

partidas alzadas a justificar

4. FINANCIACIÓN

Existe crédito adecuado y suficiente para hacer frente a las obligaciones que conlleva el contrato que nos ocupa en la partida 1.04041.622.333.00.01 2022 (2467)

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

5. FORMA DE PAGO

El pago se efectuará mediante certificaciones periódicas expedidas por el director facultativo de las mismas, y se abonarán de conformidad con los plazos establecidos en el artículo 198 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

Los abonos resultantes de las certificaciones expedidas tienen el concepto de pagos a cuenta sujetos a las rectificaciones y variaciones que se produzcan en la medición final y sin suponer en forma alguna aprobación y recepción de las obras que comprenden.

6. REVISIÓN DE PRECIOS

En este contrato no existirá revisión de precios.

7. GARANTÍAS

Definitiva: La empresa que haya presentado la mejor oferta, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligada a constituir una garantía definitiva equivalente al 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.

El plazo para la constitución de la citada garantía será de 10 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación contados a partir del siguiente a aquel en que el licitador que haya presentado la mejor oferta haya recibido el requerimiento, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108.1 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, con la salvedad de que las constituidas en metálico

Behin betiko bermea, hau da, berme osoa edo bermearen zati bat, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 111. artikuluan ezarritakoaren arabera itzuliko da; behin bermea jartzeko epea igaro ostean, eta esleipendunak kontratua dela-eta hartu dituen obligazio guztiak bete ondoren.

8. KONTRATUA BETETZEA

Kontratuaren exekuzioa 2022ko uztailaren 1ean hasiko da eta 2022ko abuztuaren 31rako bukatuta egon beharko da. Horregatik, hasierako data baino lehen zuinketa akta eginda egon beharko da. Zuinketa egiaztatzeko akta alderdi interesdun biek sinatu beharko dute. Bestalde, zuinketa egiaztatzeko akta kontratuaren osagai izango da betearazte ondorioetarako.

Egiaztatzearen emaitzak, zuzendaritza fakultatiboaren arabera eta kontratistak inolako zalantzarik adierazi gabe, islatzen baldin badu proiektua bideragarria dela eta lursailak eskura daudela, zuzendari fakultatiboak, exekuzioa abian jartzeko baimena emango du uztailaren 1ean hasteko, eta exekuzio epea data horretatik aurrera jarriko da abian.

Exekuzioari ekiteko baimena berariaz jasoko da aktan, eta akta sinatze hutsaren ondorioz, kontratista jakinarazita gelditukо da.

SPKLren 245 b) artikuluaren arabera, kontratua deuseztatzeko arrazoi izango da obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.

Kontratistak berak izango du kontratua betetzeko ardura, eta galeraren, matxuraren bat edo kalteren bat izanez gero, ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 239. artikuluan jasotako ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta kontratistak arduragabeko jarduerarik egin ez badu.

Proiektuan aurreikusi gabeko gorabeheren ondorioz sortzen diren gain-kostuak kontratistaren kontura izango dira, eta Administrazioak ez du horien gaineko inolako erantzukizunik izango.

Esleipendunak **lan-programa** bat aurkeztu beharko du, Kontratazio organoak onar dezan. Programa hori ezin

deberán ser ingresadas en cualquiera de las cuentas corrientes del Ayuntamiento de Elgoibar.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial, en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

La ejecución del contrato comenzará el 1 de julio de 2022 y deberá estar terminada para el 31 de agosto del mismo año. Por lo tanto, con anterioridad a la fecha de inicio deberá estar hecha el acta de comprobación del replanteo. El acta de comprobación del replanteo deberá ser firmada por ambas partes interesadas y formará parte integrante del contrato a los efectos de su exigibilidad.

Si el resultado de la comprobación demuestra, a juicio de la dirección facultativa, y sin reserva por parte del contratista, la viabilidad del proyecto y la disponibilidad de los terrenos, se dará por aquél la autorización para su inicio el 1 de julio, empezándose a contar el plazo de ejecución desde esa fecha.

La autorización de inicio constará explícitamente en la misma, quedando notificado el contratista por el mero hecho de suscribirla.

De acuerdo con el artículo 245 b) de la LCSP será causa de resolución del contrato la suspensión de la iniciación de las obras por plazo superior a cuatro meses.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, y éste no tendrá derecho a indemnización por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras, salvo en los casos de fuerza mayor previstos en el artículo 239 de la Ley de Contratos del Sector Público y siempre que no exista actuación imprudente por parte del contratista.

Los sobre costes que se deriven de la ejecución del contrato por circunstancias no previstas en el proyecto correrán a cuenta del contratista, y la Administración quedará exonerada de toda responsabilidad.

El adjudicatario deberá presentar un **programa de trabajos** para que sea aprobado por el órgano de

izango da kontratuan agertzen den baldintza bat ere aldatu. Programa aztertu ostean, kontratazio organoak, ezarpenari buruzko ebazpena emango du, eta kontratuari atxikiko zaio, eta horretaz gain, aldaketak edo hainbat baldintza betetzeko betebeharra ezarriko ditu, eta horiek kontratuari erantsiko zaizkio.

Kontratistak lan arloko segurtasunari eta osasunari buruzko Plana aurkeztuko dio kontratazio Organoari. Bertan, azterketan edo oinarrizko azterketan jasotako aurreikuspenak aztertu, landu, garatu eta osatuko dira, eta plan hori onartzea bidezkoa den ala ez adieraziko da. Plana kontratazio organoak onartu beharko du, obrari ekin aurretik; eta horretarako, obrarako izendatu den segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak, edo bestela, zuzendaritza fakultatiboak, aldez aurretik txostena egin beharko du.

Nolanahi ere, obra hauek egiteko hertsiki jarraitu beharko zaie Pleguhonetan ezarritako baldintzei, plegu honi lotutako zehaztasun teknikoei eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Nagusian ezarritakoari. Bereziki, Kontratuaren exekuzioa Administrazioaren gidaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean bideratuko da. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabiliko ditu eskumen horiek.

Kontratistari edo honen ardurapeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzak edo hutsegiteak tarteko, kontratu honen bilakaera egokia eragozten baldin bada, Administrazioak egoki irizten dizkion neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, kontratua behar bezala bete dadila lortu ahal izateko.

9. ENPRESA KONTRATISTEK BETE BEHARREKO GUTXIENEKO LAN BALDINTZEI BURUZKO KLAUSULA SOZIALA

Kontratua exekutatzeko ondorengo baldintza bereziak ezartzen dira, SPKLren 202. artikuluan ezarritakoari jarraiki

Kontratu honen xede diren obrak egiteko hartuko dituen langileak direla-eta, kontratistak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, laneko segurtasunaren eta garbitasunaren arloan, laneko arriskuen prebentzioaren arloan eta kontratua exekutatzen den bitartean emango diren arauen arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik

Contratación. Dicho programa no podrá modificar ninguna de las condiciones contractuales. A la vista del mismo, el órgano de contratación resolverá sobre su aplicación, pudiendo imponer la introducción de modificaciones o el cumplimiento de determinadas prescripciones, incorporándose al contrato.

El contratista presentará al Órgano de contratación el Plan de seguridad y salud en el trabajo en el que se analicen, estudien, desarrollen y complementen las previsiones contenidas en el estudio o estudio básico, en función de su propio sistema de ejecución de la obra. El plan deberá ser aprobado por el órgano de contratación antes del inicio de la obra con el previo informe del coordinador en materia de seguridad y salud designado para la obra, o, en su caso, por la dirección facultativa.

Las obras se realizarán con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el presente Pliego, a las especificaciones técnicas unidas al mismo, así como a lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre. En especial, la ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

9. CLÁUSULA SOCIAL REFERENTE A LAS CONDICIONES LABORALES MÍNIMAS DE LAS EMPRESAS CONTRATISTAS

Se establecen las siguientes condiciones especiales de ejecución del contrato de acuerdo con lo establecido en el artículo 202 de la LCSP

El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social, de seguridad e higiene en el trabajo, de prevención de riesgos laborales y de las normas que se promulguen durante la ejecución del contrato, con respecto al personal que emplee en las obras objeto de este contrato, quedando la Administración exonerada

izango xedapen horiek betetzen ez badira.	de responsabilidad por este incumplimiento.
Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien lan baldintzei hitzarmen kolektiboa.	Las empresas licitadoras deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato.
Enpresa kontratistak, kontratua exekutatzen den garai guztian zehar, ezarri beharrekoa den hitzarmen kolektiboan zehaztutako arauak eta baldintzak bete beharko ditu; eta nolanahi ere, esleipendunak langileen soldaten baldintzak bete beharko ditu, ezarri beharrekoa den Hitzarmen Kolektibo sektorialean ezarritakoaren arabera.	La empresa contratista está obligada a cumplir durante todo el período de ejecución del contrato las normas y condiciones fijadas en el convenio colectivo de aplicación, si bien en todo caso, el adjudicatario está obligado a cumplir las condiciones salariales de los trabajadores conforme al Convenio Colectivo sectorial de aplicación.
Kontratuaren oinarrizko betebehar hauek betetzen direla kontrolatzeko, esleipendunak, hiru hilabetean behin, ondorengo informazioa aurkeztu beharko dio kontratua tramitatu duen administrazio unitateari.	Para controlar el cumplimiento de estas obligaciones contractuales esenciales, el adjudicatario debe presentar trimestralmente ante la unidad administrativa que ha tramitado el contrato, la siguiente información:
— Soldatak eta Gizarte Segurantza ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, baita azpikontratistei egindako ordainketei dagozkienak ere.	— Los documentos justificativos de los pagos salariales y a la Seguridad Social, así como de los realizados a los subcontratistas.
— Segurtasunaren eta osasunaren arloan dituen betebeharrak betetzeko egiten dituen jarduerei buruzko azalpen txostena. Bertan, hiruhileko bakoitzean gertatzen diren gorabeherak zehaztuko dira.	— Informe especificativo de las actuaciones que realiza para el cumplimiento de sus obligaciones en materia de seguridad y salud laboral, indicando las incidencias que se hayan producido al respecto en cada trimestre.
Kontratuaren udal arduradunak txosten bat egingo du justifikazio horren betetze mailari buruz. Txosten horretan, era berean, berariaz aipatuko da baldintza honetan adierazitako betebeharrak, kontratua kudeatzen duten langileei dagozkienak, bete diren ala ez.	El responsable municipal del contrato elaborará un informe sobre el cumplimiento de dicha justificación. En ese informe se hará también expresa referencia al cumplimiento de las obligaciones indicadas en esta cláusula en relación con el personal que gestiona el contrato.
Aldeko txosten hori egiten ez baldin bada, ez da dagokion faktura ordainduko, eta berehala zigor espedientea edo kontratua suntsitzeko espedientea abiaraziko da, dagokionaren arabera.	Sin dicho informe favorable no se dará curso al pago de la factura correspondiente y se iniciará de inmediato un expediente de penalización o de resolución del contrato, según proceda.
Baldintza hauek kontratuaren nahitaezko betebeharrak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, hizkuntza baldintzak ez betetzeak gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu; alegia, zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsitzea.	Estas obligaciones constituyen una obligación esencial del contrato, a los efectos de lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público, y, por ello, su incumplimiento tendrá las mismas consecuencias que el incumplimiento del resto de las obligaciones, es decir, la aplicación de penalidades o su resolución.
Kontratuaren parte diren exekuzio baldintza berezi guztiak era berean eskatuko zaizkie kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten kontratista guztiei.	Todas las condiciones especiales de ejecución que forman parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen en la ejecución

del mismo.

10.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratu honen xede diren zeregin guztietan, enpresa esleipendunak, kontratatzen duen administrazioan ezartzen diren hizkuntza irizpideen arabera jokatuko du. Era berean, enpresak administrazioarekin dituen harremanak azken honen lan hizkuntzaren araberakoak izango dira.

Horiek horrela, errotuluak, oharrak, seinaleak, informazio oharrak, eta gainerako komunikazio orokor guztiak, piktograma bidez egingo dira, eta horien ondoan, nahitaezkoa baldin bada, azalpen mezua jarriko da ele bietan, euskarari lehentasuna emanda.

Kontratua sustatzen duen administrazio unitatea, kontratuan ezarritako hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipena egiteaz arduratuko da, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan. Hala, jarraipen horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Euskara Zerbitzuak, bestalde, betetze maila ontzat emango du, edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 62. eta 210. artikuluetan ezarritakoaren arabera, kontratuaren arduradunak kontratua betetzen dela ikuskatuko du, jarraipena egingo du hizkuntza betebeharrak behar bezala bete direla jakiteko, eta horretarako beharrezkoak diren erabakiak hartu eta argibideak emango ditu.

Baldintza plegu honetan jasotzen diren hizkuntza betebeharrak kontratuaren nahitaezko betebeharrak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, hizkuntza baldintzak ez betetzeak gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu; alegia, zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsitzea.

10.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

La empresa adjudicataria actuará de conformidad con los criterios lingüísticos que se apliquen en la administración contratante en todos los cometidos objeto del contrato. Así mismo, las relaciones que la empresa mantiene con la administración se desarrollarán de acuerdo con la lengua de trabajo de ésta última.

En este sentido, los rótulos, avisos, señales, notas informativas y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante pictogramas, y a su lado, en el caso de que sea indispensable, se dispondrá un mensaje explicativo en bilingüe, dando prioridad al euskera.

La unidad administrativa promotora del contrato deberá responsabilizarse de realizar el seguimiento del cumplimiento de los requerimientos lingüísticos establecidos en él, de modo análogo al seguimiento del resto de condiciones y en plazos similares, dando cuenta de ello al Servicio de Euskera, quien dará su aprobación o propondrá medidas correctoras.

De conformidad con los artículos 62 y 210 de la Ley de Contratos del Sector Público el responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento del contrato, hará seguimiento de la correcta observancia de los requerimientos lingüísticos, y adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin.

Las obligaciones lingüísticas que se recogen en estos pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial del contrato, a los efectos de lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público, y, por ello, su incumplimiento tendrá las mismas consecuencias que el incumplimiento del resto de las obligaciones, es decir, la aplicación de penalidades o su resolución.

11. KONTRATUA BETETZEN DEN BITARTEAN BESTEEI EGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA.

Kontratistak izango du, obrak burutzen diren bitartean, bere ardurapeko langileen egintzen, hutsegiteen edo zabarkerien ondorioz, antolaketa eskasaren ondorioz, edo obrak gaizki

11. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

El contratista será responsable, durante la ejecución de las obras, de todos los daños y perjuicios que se puedan ocasionar a cualquier persona, propiedad o servicio,

antolatu nahiz oker seinaleztatzearen ondorioz, edozein pertsonari, edozein jabetza edo zerbitzu publiko zein pribaturi, eragiten zaizkien kalte galeren gaineko erantzukizuna.

Horretarako, esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, honako aseguru kontratu hauen polizak eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu:

a) Eraikuntzako Arrisku Orotarako Poliza, egindako obrek izan ditzaketen kalte guztiak estaliko dituena. Aseguratu gisa, Elgoibarko Udala agertu beharko da; eta honako estaldura hauek izan beharko ditu:

1) Suteen, tximisten, lapurreten, talken, trebetasun ezaren, arduragabekerien, asmo txarreko jarduera bandalikoen, naturako arriskuen edota aipatu gabeko beste edozein arriskuren ondorioz gerta daitezkeen kalteak.

2) Diseinu akatsen, fabrikako arriskuen, aparteko orduengatiko gastuen, hondakinak kentzearen, eraistearen, agintariek hartutako neurrien, aldez aurretik zeuden ondasunetan egindako kalteen, greben, matxinaden eta terrorismoaren ondorioz eragindako kalteen berme gehigarriak.

Eraikitze aldian jatorria duten galerak edo kalteak estalita egongo dira. Era berean, obra kontratuan ezarritako betebeharrak egoki betetzeko burutzen diren lanen ondorioz, eraikitze aldian edo ondorengo aldietan, sortzen diren galerak edo kalteak ere estalita egongo dira.

Mantentze aldia, gutxienez, bi urtekoa izango da obren harrera egiten denetik hasita edo bermearen luzapenean eskaini den denboratik hasita, baldin eta denbora hori luzeagoa bada.

Aseguratutako zenbatekoa, gutxienez, obraren balioaren parekoa izango da. Elgoibarko Udala aseguratu gehigarri moduan sartuta egongo da.

b)Erantzukizun Zibileko Poliza, honako mota hauetakoa: orokorra, patronalari buruzkoa, gurutzatua, bukatutako lanei dagokiena. Kontratista, azpi-kontratistak eta Udala- obren promotore den aldetik- aseguratuta egongo dira; eta gutxienez, MILIOI BAT EUROKO (1.000.000,00 €) kopurua bermatu beharko da.

público o privado, como consecuencia de los actos, omisiones o negligencias del personal a su cargo, o de una deficiente organización, protección o señalización de las obras.

Para ello, el adjudicatario, antes de la firma del contrato, deberá aportar copia de la póliza y justificante de pago de los siguientes contratos de seguro:

a) Póliza de Todo Riesgo Construcción que cubra todos los daños que puedan sufrir las obras realizadas y en curso de realización, incluyendo como asegurado al Ayuntamiento de Elgoibar, y que cubra las siguientes coberturas:

1) Los daños derivados de los riesgos de incendio, rayo, explosión, robo, expoliación, impacto, impericia, negligencia, actos vandálicos y malintencionados, de los riesgos de la naturaleza y/o cualquier otro riesgo no denominado.

2) Garantías adicionales derivadas de error de diseño, riesgo del fabricante, gastos por horas extraordinarias, desescombrado, demolición, medidas adoptadas por la autoridad, daños a bienes preexistentes, huelga, motín y terrorismo.

Quedará asegurada toda pérdida o daño que resulte de una causa cuyo origen se encuentre en el período de construcción, así como la que se ocasione en esta etapa o posteriores como consecuencia de la ejecución de los trabajos llevados a cabo con el fin de dar correcto cumplimiento a las obligaciones estipuladas en el contrato de obras.

El período de mantenimiento será, como mínimo, de 1 año a partir de la recepción de las obras o del tiempo que se haya ofertado en la posible ampliación de la garantía si este fuera superior.

La suma asegurada deberá ser igual, como mínimo, al valor de la obra. Debe quedar incluido el Ayuntamiento de Elgoibar como asegurado adicional.

b) Póliza de Responsabilidad Civil, en sus vertientes de general, patronal, cruzada y trabajos terminados, incluyendo como asegurado al contratista, subcontratistas y el Ayuntamiento de Elgoibar como promotor de las obras, garantizando, como mínimo, un importe de un millón de euros (1.000.000,00 €)

Beti ere esleipendunak bere gain hartuko ditu galerak eta kalteak, frankiziari dagokion zenbatekoaren barruan, nahiz aseguru poliza desberdinetan ezartzen diren mugak gainditzen dituzten heinean.

Obrak bukatzeko aurreikusi den epean atzerapena sortzen bada, beharrezkoak diren luzapenak kontratatuko dira, eta esleipedunak ordaindu beharko du horri dagokion gainprima.

12. KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 203. artikuluaren arabera, kontratu administratiboa herri intereseko arrazoiak tarteko bakarrik aldatu ahal izango da, 4. azpiatalean aurreikusitako kasuetan eta eran, eta 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, eta 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunei jarraiki.

Kontratuan egiten diren aldaketen ondorioz, kontratuan aipatzen ez diren obra unitate berriak sartu behar baldin badira, aldaketa horien prezioak administrazioak finkatuko ditu, eta kontratistak onartzen ez baldin baditu, kontratazio organoak beste enpresari batekin kontratatu ahal izango ditu horiek finkatu duen prezio berberean, edo bestela, administrazioak berak exekutatu ahal izango ditu.

13. OBREN HARRERA ETA BERMERAKO EPEA

Obrak bukatu, eta gehienez ere hilabeteko epean, obra horien harrera egiteko egintza formala eta positiboa egingo da. Bestalde, egintza horren akta jaso egin beharko da.

Kontratazio organoak, obren harrera egin eta hiru hilabeteko epean, exekutatutako obren bukaerako egiaztagiria onartu beharko du, eta kontratistari ordainduko dio kontratuaren likidazioaren kontura, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean aurreikusitako epearen barruan.

Era berean, eta enpresek eskainitakoari jarraiki, gutxienez, urtebeteko epea ezarriko da, harrera formala egiten den egunetik aurrera. Epe hori berme bezala ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoa

En todo caso, serán soportados por el adjudicatario los daños y perjuicios en la cuantía de la franquicia y en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro.

En caso de producirse un retraso en la finalización de las obras sobre la fecha prevista, se procederá a la contratación de las prórrogas necesarias debiendo el adjudicatario pagar la sobreprima que corresponde.

12. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

Conforme al artículo 203 de La Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, este contrato administrativo solo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma previstos en la subsección 4ª y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 191 con las particularidades previstas en el artículo 207.

Cuando las modificaciones en el contrato supongan la introducción de nuevas unidades de obra no comprendidas en el mismo, los precios de dichas modificaciones serán los fijados por la administración, y en caso de que el contratista no las acepte, el órgano de contratación podrá contratarlas con otro empresario en los mismos precios que hubiese fijado o ejecutarlas directamente.

13. RECEPCIÓN DE LAS OBRAS Y PLAZO DE GARANTÍA

En el plazo máximo de un mes desde la finalización de las obras, cuando éstas se encuentren en buen estado, se producirá el acto formal y positivo de recepción de las mismas, del que se levantará la correspondiente acta.

Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público

Asimismo, se establece, como mínimo, y en función de lo ofertado por las empresas, un plazo de un año, a contar desde la fecha de recepción formal, que se fija como garantía a los efectos previstos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones

betetzeko.

Obrak harrera egiteko moduan ez badaude, halaxe jasoko da aktan, eta obren zuzendari fakultatiboak antzemandako akatsak adieraziko ditu, beharrezkoak diren jarraibideak zehaztuko ditu, eta akats horiek konpontzeko epea ezarriko du. Akatsak zuzendu ostean edo, besterik gabe, horretarako emandako epea igaro ostean, adostasun akta egingo da, edo bestela, beste epe bat emango da zuzenketa egiteko. Hori egin ezean, kontratua bukatutzat emango da.

Kontratistak ordaindu beharko ditu bermerako epean obrak mantentzeko sortzen diren gastu guztiak, eta kontzeptu hau dela-eta, kontratistak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik izango. Ezinbesteko arrazoiren bat dela medio, obran eragiten diren kalteak aurreko paragrafoan adierazitakotik kanpo geldituko dira, eta horiek Korporazioak hartuko ditu bere gain. Hala ere, Korporazioak ahalmena izango du kontratistari konponketa obrak egin ditzala eskatzeko.

Hala ere, kontratistak kontratua bete ez duelako, eta eraikuntza lanetan izan diren ezkutuko akatsak tarteko, obra bermerako ezarritako epea igaro ondoren nabaritzen bada, kontratistak kalte-galeren gaineko erantzukizuna izango du, obren harrera egin eta hurrengo hamabost urteetan.

Era berean, kontratistak, epe horren barruan, zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormei, edo egituraren beste elementu batzuei eragiten dieten akatsen edo hutsegiteen ondorioz sortzen diren eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen duten kalteen gaineko ardura izango du.

Erantzukizuna eskatzeko ekintzak bi urteko epean preskribatuko dira, gertatzen direnetik edo aditzera ematen direnetik hasita. Nolanahi ere, kontuan izango dira, kontratua bete ez delako, erantzukizuna eskatzeko egon daitezkeen ekintzak.

Epe hori igarota, kalteren edo galeraren bat ere adierazi ez baldin bada, kontratistaren erantzukizuna erabat iraungiko da.

14. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

A) KONTRATUA BETETZEKO EPEEI

Públicas.

Cuando las obras no estén en condiciones de ser recibidas se hará constar así en el acta, y el director facultativo de las obras señalará los defectos detectados, detallará las instrucciones precisas y fijará un plazo para corregirlos. Corregidos los defectos o transcurrido simplemente el plazo señalado para hacerlo, se levantará acta de conformidad o, en su defecto, se concederá un nuevo plazo para llevar a cabo la corrección o se declarará rescindido el contrato.

Todos los gastos que se ocasionen por la conservación de las obras durante el periodo de garantía serán de cuenta del contratista no teniendo derecho a ninguna indemnización por este concepto. Se exceptúan los daños ocasionados en la obra por fuerza mayor, que serán soportados por la Corporación, si bien ésta tendrá la facultad de exigir al contratista que realice las obras de reparación.

No obstante, si la obra se arruina con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción debido a incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá éste de los daños y perjuicios durante el término de quince años a contar desde la recepción.

Así mismo, el contratista responderá durante dicho plazo de los daños materiales causados en la obra por vicios o defectos que afecten a la cimentación, los soportes, las vigas, los forjados, los muros de carga u otros elementos estructurales y que comprometan directamente la resistencia mecánica y la estabilidad de la construcción.

Las acciones para exigir la responsabilidad prescribirán en el plazo de dos años a contar desde que se produzcan o manifiesten dichos daños, sin perjuicio de las acciones que puedan subsistir para exigir responsabilidades por incumplimiento contractual

Transcurrido este plazo sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida la responsabilidad del contratista.

14. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

A) DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL

DAGOZKIENAK

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzerakoan berandutzan erortzen baldin bada, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan bermea galdu egingo da. Horretaz gain, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 1,00 € eguneko kontratuaren prezioan jasotako 1.000,00 euroko.

Berandutza dela-eta ezartzen diren zigorrak kontratuaren ehuneko bostaren multiplo bihurtzen direnean, Kontratazio Organoak kontratua bertan behera uzteko, edo zigor berriak jarrita, kontratuarekin jarraitzea erabakitzeko eskumena izango du.

Eskatutako agirien jatorrizkoak edo kopiak aurkeztu ahal izango dira, Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatutakoak.	La documentación exigida se podrá presentar en original o copia de la misma, debidamente compulsada o autenticada por la Administración o por notario.
"B" artxibo elektronikoari "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI BALORA DAITZEZKEEN IRIZPIDEAK" izena jarriko zaio, eta bertan honako dokumentu hauek sartuko dira:	El archivo electrónico "B" se subtitulará "PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y CRITERIOS VALORABLES DE FORMA AUTOMÁTICA", y contendrá los siguientes documentos:

Automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen irizpideei buruzko dokumentazioa sartuko da bertan, alegia,

a) Proposamen ekonomikoa, non kontratuaren exekuzio prezioa zehaztuko den.

Eskaintza ekonomikoa ondorengo ereduari jarraiki aurkeztu beharko da:

Nik,……(e)k,…… ……(e)n (…… PK) bizi naizen, eta …… zenbakidun telefonoa eta …….. zenbakidun NANa ditudan honek, gaitasun juridiko osoaren eta jarduteko gaitasun osoaren jabe izanik, nire izenean, edo ……..……..……(e)n bizi den, eta …….. zenbakidun telefonoa eta ……zenbakidun NANa edo IFK (kontuan izan pertsona fisikoa ala juridikoa den) dituen ……(r)en izenean, Elgoibarko Udalak "ELGOIBARKO HERRIKO ANTZOKIKO KAMERINOEN BARNE EEREFORMA PROIEKTUARI DAGOZKION OBRAK" kontratatzeko deitu duen lehiaketaren jakitun izan ostean, honako hau AITORTZEN DUT:

1) Kontratua ……euroren, gehi %.....(e)ko BEZari dagozkion …… euroren truke betetzeko hitza ematen dudala, eta prezioan honako kontzeptu hauek sartuta daudela: zergak, gastuak, edozein arlo fiskaletako tasak nahiz arielak eta kontratistaren etekin industriala.

2) Proiektua bera, proiektuaren edukia, Administrazio Baldintza Partikularren gaineko Plegua eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiri guztiak ezagutzen ditudala, eta aldi berean, horiek osotasunean onartzen ditudala.

3) Nik ordezkatzen dudan enpresak jarduera irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen betebehar guztiak betetzen dituela.

……..(e)n, 2022ko.....aren,.....(e)an

Proposamen ekonomikoak ez dira onartuko, baldin eta, Administrazioaren ustetan, eskaintza kontuan izateko ezinbestekoa den informazioa jasotzea galarazten duten hutsegiteak, akatsak edo zirriborroak badituzte. Kontratazio Mahaiak atzera botako ditu aztertutako eta onartutako

Contendrá la documentación relativa a los criterios de adjudicación cuantificables de manera automática, en concreto:

a) Proposición económica en la que se expresará el precio de ejecución del contrato.

La oferta económica se presentará ajustada al siguiente modelo:

D.....con domicilio en....., (CP.....), D.N.I. n....., teléfono..... en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio o en representación de ....., con domicilio en ....., CP....., teléfono....., y DNI o CIF (según se trate de persona física o jurídica), enterado del concurso convocado por el Ayuntamiento de Elgoibar, para la contratación de las "OBRAS CORRESPONDIENTES AL PROYECTO DE REFORMA INTERIOR DE LOS CAMERINOS DEL HERRIKO ANTZOKIA DE ELGOIBAR" declaro:

1º) Que me comprometo a su ejecución por el precio de..... €, más……€, correspondientes al……% de IVA, debiendo entenderse comprendidos en el precio todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial del contratista.

2º) Que conozco el Proyecto, con su contenido, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

3º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.

En....., a.....de.....de 2022

No se aceptarán las proposiciones económicas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. Si alguna proposición no guardase concordancia con la

dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen dutenak edo ezarritako eredua nabarmen aldatzen dutenak. Era berean, lizitatzaileak onartzen baldin badu proposamenak bideraezina egiten duen akats edo hutsaltasunen bat duela, Mahaiak proposamena atzera botako du. Horretarako, Kontratazio Mahaiak ebazpen arrazoitua eman beharko du. Ez da atzera botatzeko arrazoi nahikoa izango, ereduaren hainbat hitz kendu edo aldatzea, baldin eta ereduaren zentzua aldatzen ez bada.

b) Bermerako epea luzatzeko proposamena (Nahi bada)

21. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Hirigintzako zinegotzia
- Idazkaria: Kontratazio teknikaria.
- Mahaikideak:

1.- Udaleko idazkaria.
2.- Udaleko kontu-hartzailea.
3.- Udaleko arkitekto teknikoa

Halaber, udal teknikari guztiek parte hartu ahal izango dute Kontratazio Mahaian, baldin eta Mahaiak, aholkularitza lanak egiteko, horiek parte har dezatela eskatzen baldin badu.

22. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ostean, Mahaiak garaiz eta eraz jasotako dokumentazioa (A artxibo elektronikoa) kalifikatuko du; horretarako, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusiaren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jardungo du.

Hori dela-eta, lizitatzaileek duten gaitasunari eta kaudimenari buruzko argibideak eta dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira. Horiek Araudiaren 22. artikuluak xedatzen duenaren arabera aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Kontratazio Mahaiak argibideak edo informazio osagarria ahoz eskatuko die interesdunei. Eskabide hau, halaber, Kontratazio Organoaren iragarki taulan iragarriko da. Kontratazio Mahaiak, modu berbera erabiliko du, aurkeztutako dokumentazioan zuzen

documentación examinada y admitida, excediese del presupuesto base de licitación, variase sustancialmente el modelo establecido, comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte del licitador de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa de contratación mediante resolución motivada, sin que sea bastante para el rechazo el cambio u omisión de algunas palabras del modelo si ello no altera su sentido.

b) Propuesta de ampliación plazo de garantía (En su caso)

21. MESA DE CONTRATACIÓN

La mesa de contratación estará formada por las siguientes personas:

- Presidente: El concejal de Urbanismo
- Secretario: el Técnico de Contratación.
- Vocales:

1.- El secretario municipal.
2.- La Interventora municipal.
3.- La arquitecta técnica municipal.

Podrán asistir, además, todos aquellos responsables técnicos municipales cuya presencia sea solicitada por la Mesa para ejercer labores de asesoramiento.

22. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y APERTURA DE PROPOSICIONES

Vencido el plazo de presentación de proposiciones, la Mesa calificará la documentación recibida en tiempo y forma (archivo electrónico "A"), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

A tal efecto, podrán pedirse aclaraciones o documentos complementarios sobre la capacidad y solvencia de los licitadores que habrán de aportarse, tal y como dispone el artículo 22 del Reglamento, en el plazo de cinco días naturales. La solicitud de aclaraciones o información complementaria será comunicada por la Mesa verbalmente a los interesados, anunciándose, igualmente, en el tablón de anuncios del Órgano de contratación. En la misma forma comunicará la Mesa la

daitezkeen akatsak daudela jakinarazteko. Horiek horrela, lizitatzaileek hiru laneguneko epea izango dute, antzemandako akatsak zuzentzeko.	existencia de vicios subsanables en la documentación presentada para que en el plazo, en este caso, de tres días hábiles los licitadores corrijan o subsanen los defectos observados.
"B" artxiboan aurkeztutako proposamenak Elgoibarko Udaleko kontratatzailearen profilean adieraziko den egunean, lekuan eta orduan irekiko dira.	Las ofertas presentadas en el archivo electrónico "B" serán abiertas en la fecha, lugar y hora que se indiquen en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Elgoibar.
Ondoren, Kontratazio Mahaiak kontratua esleitzeko proposamena egingo dio kontratua egin behar duen Kontratazio Organoari.	Posteriormente, la Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación al Órgano de Contratación que haya de efectuar la misma.
Esleipendun gisa proposatu den lizitatzaileari dagokionez, Mahaiak Lizitaziogileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan ondorengoa egiaztatuko du: enpresa behar bezala eratuta dagoela; proposamena sinatzen duenak eskaintza egiteko adinakoa den ahalmena duela; kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa badituela (edo bestela, dagokion sailkapena) eta ez dagoela sartuta kontratatzeko debeku batean ere.	En relación con el licitador propuesto como adjudicatario, la Mesa comprobará en el Registro Oficial de Licitadores y Empresa Clasificadas que la empresa está debidamente constituida, el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente y no está incursa en ninguna prohibición para contratar.
Kontratazio Mahaiak esleitzeko egiten duen proposamena tarteko, ez da inolako eskubiderik sortuko, Administrazioaren aurrean, eskaintza egokiena dela adierazi den eskaintza egin duen lizitatzailearen alde.	La propuesta de adjudicación realizada por la Mesa de Contratación no creará derecho alguno en favor del licitador cuya oferta ha sido declarada como la de mayor puntuación.
Ezin izango da proposatutako lizitatzailearen aldeko esleipena egin, baldin eta Kontratazio organoak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 149. Artikuluan xedatutakoari jarraiki, normaletik kanpoko edo proportziorik gabeko balioak dituelako, proposamena exekutatu ezina dela uste izateko behar bezala oinarritutako arrazoiak baditu.	No procederá la adjudicación al licitador propuesto para ello si el órgano de Contratación, basándose en lo dispuesto en el artículo 149 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, tuviera razones fundadas para considerar que la propuesta no se podrá ejecutar por contener valores anormales o desproporcionados.
Proportziorik gabekotzat edo normaletik kanpokotzat har daitekeen eskaintza bat dagoela antzematen denean, entzunaldia eskaini beharko zaio eskaintza aurkeztu duen enpresari, eskaintzaren balorazioa justifika dezan, eta baldintzak zehaztu ditzan, batik bat, kontratuaren exekuzioa posible egingo duen aurrezkiari, zerbitzua exekutatzeko jarriko dituen egokitutako konponbide teknikoei eta bereziki aldekoak diren baldintzei, enplegua babesteko indarrean dauden xedapenen babesari eta zerbitzua eskainiko den lekuan indarrean izango diren lan baldintzei, edo Estatuko laguntzaren bat lortzeko aukerari dagokienez.	Cuando se identifique una oferta que pueda ser considerada desproporcionada o anormal, deberá darse audiencia a la empresa licitadora que la haya presentado para que justifique la valoración de la oferta y precise las condiciones de la misma, en particular en lo que se refiere al ahorro que permita la ejecución del contrato, las soluciones técnicas adaptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para ejecutar la prestación, el respeto de las disposiciones vigentes relativas a la protección del empleo y las condiciones de trabajo vigentes en el lugar en que se vaya a realizar la prestación, o la posible obtención de una ayuda del Estado.
Lizitaziogileak lizitazio aurrekontuan izendatzen dena baino industria mozkin txikiagoa lortzeko asmoa duela justifikatzen duten argudioak aurkeztu ahal izango ditu.	El licitador podrá presentar argumentación justificativa en la que muestre su intención de obtener un menor beneficio industrial respecto al consignado en el

Nolanahi ere, 201. artikulua betetzeko, baztertu egingo dira eskaintzak, baldin eta azpikontratazioaren arloko araudia urratzen dutelako, edo ingurumen, lan edo gizarte, nazio mailako edo nazioarteko arloan ezarri beharrekoak diren betebeharrak betetzen ez dituztelako, edo bestela, indarrean dauden hitzarmen sektorialak betetzen ez dituztelako, eskaintza horiek normala baino baxuagoak direla egiaztatzen bada. Edonola ere, proposamena osatugabea bada, edo hipotesietan, edo ikuspegi teknikotik, juridikotik edo ekonomikotik begiratuta, praktika desegokietan oinarritzen bada, uste izango da justifikazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitaziogileak proposatzen dituen prezioen edo kostuen maila baxua.

Kontratazio organoak, lizitatzailearen justifikazioa eta Udalaren txostenak kontuan hartuta, uste baldin badu, normaletik kanpoko balioak sartu izanaren ondorioz, eskaintza ezin dela bete, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintza hoberenaren aldeko esleipena egiteko akordioa hartuko du, sailkatu direneko hurrenkerari erreparatua.

23. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio Organoak kalitate-prezio hoberena duen proposamenaren aldeko esleipena egiteko proposamena egingo du. (Proposamena egin duenari esleipena egiteko beharrezkoa den dokumentazioa eskatuko dio, eta hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentazio ere bai).

Kalitate-prezio hoberena duen eskaintzaren adierazpena lehenengo sailkatuari jakinaraziko zaio; eta honek, jakinarazpena jaso ondorengo 10 laneguneta, honako jarduera hauek egin beharko ditu:

a) Ahalmena eta kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea.
b) Behin betiko bermea jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria ere bai.
c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea, baldin eta proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu.
d) Eskatutako aseguru polizen eta ordainagirien kopiak aurkeztea.
e) Hitz emandakoaren arabera, kontratua betetzeko jarri edo atxikiko dituen baliabideak

presupuesto de licitación.

En todo caso las ofertas serán rechazadas si se comprueba que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre contratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes en aplicación del artículo 201. Se entenderá, en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por el licitador cuando ésta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.

Si el órgano de contratación, considerando la justificación del licitador y los informes municipales, estimase que la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales, la excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la mejor oferta de acuerdo con el orden en que hayan sido clasificadas.

23. ADJUDICACIÓN, FORMALIZACIÓN Y GASTOS

El Órgano de Contratación acordará la propuesta de adjudicación a favor de la proposición que resulte con la mejor relación calidad-precio. (A la que requerirá la documentación necesaria para la adjudicación y, en su caso, cualquier otra documentación que no esté inscrita en el Registro de Licitadores)

La declaración de oferta con mejor relación calidad-precio será notificada al primer clasificado, el cual, en el plazo de 10 días hábiles contados desde el siguiente al de la notificación, deberá realizar las siguientes actuaciones:

a) Aportar la documentación para acreditar la capacidad y la solvencia para contratar.
b) Constituir la garantía definitiva y, en su caso, la garantía complementaria.
c) Aportar los documentos acreditativos de estar al corriente con sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social salvo que los hubiese aportado junto con la proposición.
d) Presentar copias de las pólizas y de los recibos de los seguros solicitados.
e) Acreditar el disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a

benetan jarri dituela egiaztatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 76.2 artikuluari jarraiki.

Gehienez ere 5 eguneko epean bermea eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ostean, kontratua esleipendun gisa proposatu den lizitatzaileari esleituko zaio. Esleipena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egunez.

Lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenari buruzko jakinarazpena helarazi eta hamabost lanegunen buruan, kontratua perfekzionatu egingo da.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, arestian adierazitako epean kontratua formalizatzen ez baldin bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko hiruari dagokion zenbatekoa eskatuko zaio, BEZ sartu gabe, zigor gisa. Zenbateko hori, lehendabizi, bermearen kontura kobratuko da, baldin eta bermea eratu bada.

Era berean, kontratua deuseztatzeko erabakia hartu ahal izango du, interesdunari entzunaldia egiteko aukera eskaini ostean. Halaber, kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatu ahal izango dio kontratistari.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak zein hurrenkeratan sailkatu diren kontuan izanik, adierazitako epeetan arestiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren.

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

24. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du SPKLren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren eta espediente honi erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanen bat baldin badago, Plegu honetan xedatutakoa gailenduko da.

25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

Presentada la garantía y la documentación solicitada, en un plazo no superior a 5 días se procederá a adjudicar el contrato al licitador propuesto como adjudicatario. La adjudicación se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil del contratante en el plazo de 15 días

El contrato se perfeccionará dentro de los quince días hábiles siguientes a aquél en que se reciba la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado, se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva si se hubiese constituido.

Podrá, también, acordar la resolución del mismo, previa audiencia del interesado, y exigir indemnización de daños y perjuicios al contratista.

En tal caso, el contrato de adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos en los plazos antes señalados.

III. NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE

24. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la LCSP.

En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.

25. JURISDICCIÓN COMPETENTE

Kontratu honen ondorioz sortuko diren auzigaiak kontratazio organoak ebatziko ditu. Ebazpena emateko hartuko diren akordioek, bestalde, amaiera emango diote administrazio bideari, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dira. Nolanahi ere, alderdiek arbitrajearen pean jarri ahal izango dituzte auzigaiak, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato serán resueltas por el órgano de contratación. Los acuerdos adoptados para su resolución pondrán fin a la vía administrativa y podrán ser impugnados ante la jurisdicción contencioso-administrativa. No obstante, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

26.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio hau dela-eta, norbanakoen datuak erabili behar badira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen hogeita bostgarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari

26.- PROTECCION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

En el caso de que la presente contratación implique acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Vigésima quinta de la Ley 9/2017, en relación con la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y garantía de los Derechos Digitales

27.- KONFIDENTZIALTASUNAREN BETEBEHARRA

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLren 133. Artikuluan xedatutakoa ezarri beharko da.

Kontratistak kontratuaren exekuzioa dela eta eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta informazio horri, pleguetan, izaera hori eman bazaio; edo informazioa, duen izaeraren ondorioz, konfidentzial gisa hartu behar bada.

Ezin izango da zabaldu enpresariek konfidentzialtzat jo duten informazioa, eta kontratazio organoak konfidentziala dela erabaki duena. Hori dela eta, lizitaziogileek gutun-azal bakoitzean sartu beharko dute konfidentzialtzat jo nahi duten dokumentazioaren zerrenda. Era berean, horretarako arrazoiak adierazi beharko dituzte.

27.- DEBER DE CONFIDENCIALIDAD

En relación con la confidencialidad, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 133 de la LCSP

El contratista deberá respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato a la que se le hubiese dado el referido carácter en los pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal.

No se podrá divulgar la información facilitada por los empresarios que estos hayan designado como confidencial, y así haya sido acordado por el órgano de contratación. A estos efectos, los licitadores deberán incorporar en cada uno de los sobres la relación de documentación para los que propongan ese carácter confidencial, fundamentando el motivo de tal carácter.

28.- LEHIAREN ALORREAN INDARREAN DAUDEN BETEBEHARRAK ETA AGINDUAK [(Lehia Defendatzeko Legea (LDL)]

Erakunde honetan lor daiteke lehiaren defentsarekin lotutako betebeharrei eta indarreko xedapenei buruzko informazioa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

https://www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/eus/

28.- OBLIGACIONES Y DISPOSICIONES VIGENTES EN MATERIA DE COMPETENCIA [(Ley de Defensa de la Competencia (LDC)]

En el siguiente organismo se puede obtener información de las obligaciones y disposiciones vigentes en relación con la defensa de la competencia: Autoridad Vasca de la Competencia.

https://www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/es/

Lizitatzaileen arteko kolusioa berariaz debekatuta dago Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean (LDL), 1. artikuluan, arau-hauste oso larritzat jota. Enpresari bere negozio-bolumen osoaren % 10eko zehapena ezartzea ekar dezake, edo, bolumen hori zehaztu ezin bada, 10 milioi euro arteko zehapena. Jokabide hori enpresei edo enpresa kontrolatzen duten pertsonei ere egotzi ahal izango zaie. LDLren 61.-63. artikuluak.	La colusión entre los licitadores es una práctica prohibida por el artículo 1 de la Ley 15/2007, de 3 de julio de Defensa de la Competencia (LDC), calificada como infracción muy grave, que puede tener como consecuencia la imposición de una sanción a las empresas de hasta el 10% de su volumen total de negocios o de hasta 10 millones de euros cuando no sea posible determinar el volumen anterior. Dicha conducta será también imputable a las empres as o personas que la controlan. Artículos 61 a 63 LDC.
LEA/AVCk zehapenaren zenbatekoa kendu edo murriztu ahal izango dio kartel batean inplikatutako enpresa bati, erruki-eskaera bat aurkezten badio LEA/AVCri. Horretarako, froga-elementuak aurkeztu beharko ditu, zehapen-espediente bat hasteko edo hari buruzko ikerketa-ekintzak gauzatzeko bidea emango dutenak. LDLfen 65. eta 66. artikuluak.	La LEA/AVC podrá eximir o reducir el importe de la sanción correspondiente a la empresa implicada en un cártel que presente una solicitud de clemencia ante la LEA/AVC. Para ello deberá aportar elementos de prueba que permitan la incoación de un expediente sancionador o la realización de actividades indagatorias sobre el mismo. Artículos 65 y 66 LDC.
Era berean, legezko ordezkari bakoitzari edo akordio edo erabakian esku hartu duten zuzendaritza-organoetako kide bakoitzari 60.000 eurora arteko isuna ere jartzeko aukera izango da.	Se podrá así mismo imponer una multa de hasta 60.000 euros a cada uno de sus representantes legales o a las personas que integran los órganos directivos que hayan intervenido en el acuerdo o decisión.
Lehia faltsutzea ere tipifikatuta dago Zigor Kodearen 262. artikuluan, honako hau xedatzen baitu: lehiaketa eta enkanteetan prezioak aldatzen dituztenek urte batetik hiru urtera bitarteko espetxe-zigorrak, hamabi hilabetetik hogeita laura bitarteko isunak, eta enkante judizialetan lizitatzeko desgaikuntza berezia jaso ahal izango dituzte, bai eta, hala badagokio, administrazio publikoekin kontratatzeko desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik bost arteko epean.	El falseamiento de la competencia también está tipificado en el artículo 262 del Código Penal, donde se establece que quienes alteren los precios en concursos y subastas podrán ser sancionados con penas de prisión de uno a tres años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitación especial para licitar en subastas judiciales, así como la posible pena de inhabilitación especial para contratar con las Administraciones Públicas por un periodo de tres a cinco años.
Lehia faltsutzeagatik zehatutako lizitatzaileei administrazio publikoekin kontratatzeko debekua ezarri ahal izango zaie (SPKLren 71.-73. artikuluak).	Los licitadores sancionados por falseamiento de la competencia podrán ser declarados incursos en prohibición de contratar con las Administraciones Públicas (artículos 71 a 73 LCSP).
Lehia murriztea dakarren jokabide baten kalteak pairatu dituztenek eskubidea izango dute erantzukizun zibileko kalte-ordainak eskatzeko arau-hausleek eragindako kalte-galerengatik. LDLren 71.-81. artikuluak.	Quienes resulten perjudicados por una conducta restrictiva de la competencia están legitimados para exigir una indemnización de responsabilidad civil por los daños y perjuicios causados por los infractores. Artículos 71 a 81 LDC.
SPKLren 132. eta 150. artikuluei jarraiki, kontratazio-organoak LEA/AVCri jakinarazi beharko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutu ditzakeen balizko egitate edo zantzu guztiak, lehiaren defentsaren alorreko legediaren urraketak izan badaitezke. Bereziki, akordio, erabaki edo	En virtud de lo dispuesto en los artículos 132 y 150 de la LCSP, el órgano de contratación notificará a LEA/AVC cualesquiera hechos o indicios de los que tengan conocimiento en el marco de la presente licitación, que puedan constituir infracción a la

gomendio kolektibo, edo lizitatzaileen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jardueraren zantzu oro, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragoztea, murriztea edo faltsutzea bada, edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute.	legislación de defensa de la competencia. En particular, cualquier indicio de acuerdo, decisión o recomendación colectiva, o práctica concertada o conscientemente paralela entre los licitadores, que tenga por objeto, produzca o pueda producir el efecto de impedir, restringir o falsear la competencia en el proceso de contratación.
Aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) batean batuta aurkezten diren enpresen artean kolusio-zantzuren bat hautemanez gero, kontratazio-mahaiak edo -organoak eskatuko die, SPKLren 69. artikuluarekin bat, berariaz eta arrazoibideak emanez justifika dezatela elkartuta lehiatzeko arrazoiak. Eta, enpresen justifikazioa aztertu ostean, kasuren batean kolusio- zantzu sendoak hautemanez gero, LEA/AVCri eman behar zaio horren berri.	Cuando se aprecien indicios de colusión entre empresas que concurran agrupadas en una unión temporal de empresas (UTE), la mesa o el órgano de contratación requerirá a las mismas, de acuerdo con el artículo 69 de la LCSP, que justifiquen de forma expresa y motivada las razones para concurrir agrupadas. Deberá darse traslado a LEA/AVC de aquellos casos en los que, considerando la justificación efectuada por las empresas, concurran indicios fundados de colusión.

I. ERANSKINA / ANEXO I

KONTRATATZEKO BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO AITORPEN ERANTZULEAREN EREDUA

Nik,----------(e)k, adinez nagusiak,---------- zenbakidun NANa dudan honek ----------enpresaren, hau da, Enpresa Txiki eta Ertainen baldintzak BETETZEN DITUEN / BETETZEN EZ DITUEN erakundearen ordezkari gisa, "Elgoibarko herriko antzokiko kamerinoen barne erreforma proiektuari dagozkion obrak kontratatzeko deitu duen prozeduraren jakitun izanik, nire erantzukizunaren pean, ondorengoa

AITORTZEN DUT

.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaritza baduela, egokia den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa badituela, edo bestela, beharrezkoa den sailkapena baduela, jarduera egiteko beharrezkoak diren baimenak badituela eta ez dagoela kontratatzeko debeku batean ere sartuta.

.- Arestiko sozietatea, bere administratzailea eta lege ordezkaria eta sinatzailea ez daudela kontratatzeko debekuren edo bateraezintasun egoeraren batean ere sartuta, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluak zehazten duen bezala

.- Arestiko erakundeak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoaren arabera, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela.

.- Arestiko erakundea alta hartuta dagoela Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan, dagokion epigrafean.

.- Ez duela kontratatzen duen Administrazioarekiko zerga zorrik ordaintzeko betearazte aldian, edo zor horiek bermatuta dituela.

.- Ordezkatzen dudan pertsonak, erakundeak edo enpresak modu independentean prestatu duela bere eskaintza, eta ez duela inolako

MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS PARA CONTRATAR

D/Dª. ----------, mayor de edad, con D.N.I. nº. ----------, en nombre y representación de la empresa----------, entidad que (SI) (NO) cumple condiciones de PYME y domicilio en ----------y CIF nº----------, Tel. ----------, Fax ----------, enterado del procedimiento convocado para la contratación de las obras correspondientes al proyecto de reforma interior de los camerinos del herriko antzokia de Elgoibar, bajo mi responsabilidad

DECLARO:

.- Que el firmante ostenta la representación de la sociedad que presenta la oferta, que cuenta con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente, que cuenta con las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad y que no está incurso en prohibición de contratar alguna.

.- Que la citada sociedad, sus administradores y representantes legales, no se hallan comprendidos en causa alguna de prohibición e incompatibilidad para contratar de las señaladas en el artículo 71 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

.- Que la citada entidad se halla al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

.- Que la citada entidad está dada de alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas.

.- Que no tiene deudas tributarias en período ejecutivo de pago con la Administración contratante o las tiene garantizadas.

.- Que la persona, entidad o empresa a la que represento, ha preparado su oferta de manera independiente y no ha tenido ningún tipo de

harremanik izan lehiakideekin, ez eta haiekin inolako akordiorik adostu ere prezioen, eskaintzen aurkezpenaren edo beste edozein baldintzaren inguruan

contacto con sus competidores ni celebrado ningún pacto con ellos relativo a precios, presentación de ofertas o a otras condiciones

.- Aipatutako erakundeak esku artean daukagun kontratazioan parte hartzeko beharrezkoak diren kaudimen ekonomikoari, teknikoari eta finantzarioari buruzko baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

.- Que la citada entidad cumple con todos y cada uno de los requisitos de solvencia económica, técnica y financiera para tomar parte en la contratación que nos ocupa.

.- Ordezkatzen dudan enpresak kontratuaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak dituela.

.- Que la empresa a la que represento dispone de todas las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad objeto del contrato.

.- Esku artean dugun prozedurari dagokionez, Legeak ezarritako eragin juridikoak dituzten jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazio guztien berri emateko datuak ondorengoak direla:

.- Que los datos para comunicar toda clase de notificaciones, requerimientos, y comunicaciones con los efectos jurídicos establecidos por la Ley referidos al procedimiento que nos ocupa son los siguientes:

- Posta elektronikoko helbidea:
- Helbidea:
- Telefono:
- Harremanetarako pertsona:

- Dirección de correo electrónico:
- Domicilio:
- Teléfono:
- Persona de contacto:

Eta horrela jasota gera dadin, eta esku artean darabilgun lehiaketan dagozkion ondorioak izan ditzan, adierazpen hau sinatzen dut, 2022ko _____aren _____(e)an.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos en el concurso que nos ocupa, firmo la presente declaración, a _____ de _____ de 2022

Sinadura / Firma